



5.- SARIAK

Sari atal bakoitzean lau finalista aukeratu ditugu epaimahaiak, gehienez. 2023ko azaroaren hasierako egunetan emango da ezagutzera finalistak zer lan edota zein kazetari edo komunikaziogile diren. Bi saridunak, berriz, sari banaketa eguneko ekitaldian emango dira ezagutzera, ez lehenago. Sari banaketa ekitaldian, bertan izango dira zortzi finalistak.

Hona 35. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria osatzen duten bi sariak:

- **Kazetaritza Saria:** 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak berariaz egindako oroitikurra.
- **Komunikazio Saria:** 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak berariaz egindako oroitikurra.

Gainera, 35. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariako finalistei, saridunei izan ezik, Xabier Lakak sarirako egindako serigrafia bana emango zaie.

Sariak norbanaka nahiz taldeka egindako lanei emandakoak izan daitezke, baina zatietan dira.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du epaimahaiak.

6.- EPAIMAHAI

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

- **Mahaiburua:** Sagrario Ruiz Fernandez, Andoaingo Udaleko Euskararen Normalizazioarako zinegotzi arduraduna, edo horrek bere ordezkari gisa izendatutako udalkidea.
- **Mahaikideak:** Eneko Bidegain Aire, Itxaro Borda Xarriton, Aingeru Epaltza Ruiz de Alda, Miren Gabantxo Uriagereka, Pantxika Maitia eta Ion Muñoa Errasti.
- **Idazkaria:** Arantza Aguado Perugorria, Andoaingo Udaleko euskara teknikaria.

Epaimahaiak aukera izango du bere erabakiak hartzeko prozesuan kanpoko kolaboratzaileen laguntza eskuratzeko, hala-ko beharrik ikusiko balu.

7.- SARIEI BURUZKO AZKEN ERABAKIA

Sari banaketa 2023ko azaroan ospatuko da, Andoaingo Bastero Kulturgunean, beste zenbaiten artean zortzi finalistak bertan direla, eta han emango da ezagutzera epaimahaiak bi sarien gainean hartutako azken erabakia. Epaimahaiak hartutako *Azken Erabakia* apelaezina izango da.

8.- BALDINTZAK ONARTZEA

Sari honetara aurkezteak oinarriok onzat ematea dakar berarekin, eta saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.

ZIRINMARRA
ESTUDIO GRAFICO

rikardo
arregi



2023

RAKS

35.
RIKARDO
ARREGI
KAZETARITZA
SARIA



Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942-Mendara, 1969). Idazle argi, sakon eta zorrotza, euskal prosa kazetaritzaren molde berrietan barrena abiarazi zuen. 1966ko urtarrilean Euskaltzaindiari alfabetatze saila antola zezan proposatu zion, eta hura izan zen euskalduntzeko mugimenduaren hasiera. Idazlan nagusiak “Politika Estrukturak europear alkartasunean” (1965); “Politikaren atarian” (1969); “Herriaren lekuko” (1972)...



35.



RIKARDO
ARREGI
KAZETARITZA
SARIA

Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrianetara egokitua. Helburu horren alde, Andoaingo Udalak 35. Rikardo Arregi Kazetaritza Sarirako deialdia egiten du, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesarekin, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:

1.- SARIAREN XEDEA

Euskarazko kazetaritzaren eta komunikazioaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da *Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren* helburua. Horrela, bada, 2022ko irailaren 16tik 2023ko irailaren 15era bitartean kazetaritzan eta komunikazioan euskaraz egin diren lanen kalitatea eta bikaintasuna jendaurrean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, aurrerago aipatzen diren ezaugarrien arabera epaimahaiak eredugarrien irizten dituen lanak sarituz.

2.- SARI-ATALAK

Ondoko bi atalotan banatzen da saria:

- **Kazetaritza saria**
- **Komunikazio saria**

Epaimahaiak bere esku izango du euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen **Ohorezko mugarria** emateko aukera. Ohorezko aipamena, beraz, bete-betean lotzen zaie euskarazko kazetaritzaren joan-etorrian eragin erabakigarria izan duten gertakariei zein ibilbide pertsonalei.

3.- SARI-ATALEN EZAUGARRIAK

Honakoak dira *Kazetaritza Saria* eta *Komunikazio Saria* deiturikoen ezaugarri nagusiak:

telebista
hizkera
komunikazioa
youtuberra
bloga

KAZETARITZA SARIA

2022ko irailaren 16tik 2023ko irailaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek daukate saria eskuratzeko aukera.

Berriemaitzarekin zuzen-zuzenean lotutako saria da *Kazetaritza Saria*. Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Epaimahaiak, hortaz, inolako genero-mugarik gabe erabakiko du saria. Izan ere, sari honek bultzatu nahi du informazio edo iritzi emate edo interpretazio generoetako edukien kalitatea, edo zein delarik erabilitako sormen-modua, narrazio-mota, zein igorpen-eredua.

Saria erabakitzeko irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako. Irizpide horiek aplikatzearakoan kontuan hartuko dira, besteak beste, kontakizun informatiboaren gaineko datu-bilketa eta lanketa, informazio iturrien maila, zehaztasuna, ikuspegi aniztasuna, hizkera, edukiaren balio periodistikoa, sakontasuna edo iritzi/balorazioaz osatutako pieza periodistikoa. Kontuan hartuko da, halaber, jorratutako kontakizunaren interes publikoa, zeinak gizarte eta herriarren interesekoa izan behar baitu.

IK

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera ezein euskarritan nabarmendutako artikulua edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat, kazetari bat zein kazetari talde bat izan lan sarituen egileak, edo ezein euskarritako zutabeak: horietatik guztietatik edozer saritu ahal izango du epaimahaiak.

KOMUNIKAZIO SARIA

Saria eskuratzeko aukera dute, euskarazko komunikazioaren mesedetan urrats berritzaile direnek edo izan litezkeenek. Betiere, 2022ko irailaren 16tik 2023ko irailaren 15era bitartean euskaraz sortu, ekotzi eta, kasua bada, zabaldutako komunikazio ekintza bat, komunikazio proiektu bat edo komunikazio proposamen bat izan beharko du nahitaez. Era guztietako narratibek zein komunikazioaren esparru zabaleko egitasmo pertsonal, kolektibo eta enpresarial guztiek dute tokia sari honetan, baita unibertsitateetako komunikazio ikasketetako gradu amaierako proiektuek ere.

Saria erabakitzeko irizpideen artean kontuan hartuko da, sarituko dena berritzailea, bide urratzailea edota teknologia aurreratua baliatzen dena izatea. Nolanahi ere, bereziki baloratuko da ekintza edo proiektu komunikatiboak euskal komunitatea elikatzeak erakusten duen edo izan dezakeen inpaktua, berrikuntza

albisteak
digitala
estiloa
sareak

teknologikoa kontuan hartuz eta bazterrean utzi gabe, baina modu eskluientean hartu gabe. Testuiguru horretan garrantzitsua litza-teke berritzaile izatea -edozeren berritzaile-, kalitatezkoa izatea, bide urratzaile izatea, teknologia aurreratua baliatzea, etabar.

4.- LANAK AURKEZTEAZ

Parte hartze zabala sustatzeko helburuarekin, proposamenak aurkezteko aukera irekita dago. Horrela, bada, edonork aurkez ditzake *Kazetaritza Sariaren* edota *Komunikazio Sariaren* jabe izatearen aldeko proposamenak, norbere lanen gainekoak edo besterenak, eta proposamenak aurkezteko deia egiten zaie bereziki autoreei, komunikabideei oro har eta euskarazko kazetaritza eta komunikazioarekiko interesa duten guztiei.

Hala eta guztiz ere, saria -*Kazetaritza Saria* zein *Komunikazio Saria*- eskuratzeko ez da beharrezkoa izango inork alde arretik lanak eta/edo proposamenak aurkezte. Izan ere, epaimahaiak egokien irizten duen moduan egingo ditu sari horiek erabakitzeko egin beharreko jarraipen eta hautaketa lanak, ahalmena baitu sariaren gaineko erabakiak hartzeko, hautagaitza aurkeztua izan edo ez.

Proposamenak aurkezteko epea amaituko da 2023ko irailaren 19an, eta honako elementuok

adierazi beharko dira: a) proposatutako lanaren edo/eta autorearen identifikazioa (lanaren izenburua, autorearen izen deiturak); b) argitaratutakoa den kasuan, argitalpenaren kopia, erreferentzia zehatza edo, Interneten eskuragarri baldin badago, horren lotura; c) argitaratu gabeko proiektua baldin bada, proiektua bera bidaliko da dagozkion euskarrietan. Halaber, proposamenaren merezimenduei buruzko azalpen labur bat ere bidaliko da. Hauetako modu baten bidez bidaliko dira proposamenak:

* Posta arruntaz:
Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua
La Salle etorbidea, 6, Urigain kultur etxea, 20140 Andoain

ala

* Posta elektronikoz:
raks@andoain.eus

Aurkeztutako lanak, edozein euskarritan aurkeztuta ere, ezingo dira berreskuratu.

txioa
Internet
publizitatea
erreportajea

web
irratia
prentsa
iturriak
kazetaritza